

ReVeAL



Ibilgailuen sarbidea erregulatzea biziegokitasuna hobetzeko



Proiektu honek Europar Batasunaren Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren diru laguntza jaso du, 815008 zenbakidun hitzarmenaren bidez.

Zer da ReVeAL?

ReVeAL proiektuaren xedea da Europa mailan hiriek mugikortasunaren trantsiziorako aplikatzen ari diren tresna estandarren artean (UVAR ingelesez) ibilgailuek hiriguneetara sartzeko dituzten erregulazioak txertatzea. Europar Batasunak diruz lagundutako ReVeAL ikerketa eta berrikuntza proiektuak lehen aldiz aztertuko du gaur egun oso nabarmena den lan esparru hori, duela hamar urte CURACAO proiektuan landu zenetik. Proiektuaren misio globala da hiriek beren espazioa eta garraio sarea optimizatu ditzaten ibilgailuak hirigunera nola sartzen diren erregulatzen dituzten politiken eta teknologien pakete berrien bidez. Politika horiek kutsatzaileen eta zarataren igorpenak murriztu ditzakete eta irisgarritasun eta bizi kalitate hobea lortu ditzakete, hirietan bizi diren pertsonen onurarako. Bestalde, garraio modu jasangarriagoak sustatu ditzakete, horrela hiriak bizigegokiagoak, osasuntsuagoak eta gizarteko kide guztiontzako erakargarriagoak izan daitezen lortzeko.

ReVeALek kontzeptu teorikoak lantzen ditu eta kasu praktikoekin ikerketarekin uztartzen ditu, sei hiri pilotutan praktikan aplikatuko diren neurriak erabilia. Mota horretako neurrietan interesa duten eragileekin elkarrekintza sistematikoak ere sortzen dira, komunikazio profesionaleko jardueren bidez.

Noiz gauzatuko den proiektua: 2019ko ekainean hasi zen eta hiru urtez iraungo du.

ReVeAL ikuspuntua

ReVeALek erakutsiko du egungo UVAR neurriek, ondo eta adimentsu planifikatu eta gauzatzen badira, eraginkorrak eta ekonomikoki bideragarriak direla eta azken aldiko teknologien erabilera eraginkorra egin dezaketela.

Horrez gain, ReVeALek erakutsiko du UVAR neurri adimentsuak bateragarriak direla azken aldiko mugikortasun eredu eta kontzeptu berriekin, eta ondo txertatzen direla gobernantza egitura modernoetan eta herritarren onarpena lortzen dutela.

ReVeAL metodologiak honako urratsak ditu:

- 1. UVAR tresnen trantsizio markoa eta kudeaketaren aldaketa:** Edozein UVAR ekimenetan aldaketaren kudeaketarako dauden beharrianak zehaztea.
- 2. UVAR aukeren berrikuspena eta jokalekuen eraikuntza:** UVAR neurrien sorta anitza aplikatzeko oinarriak ezartzea (ohiko neurriak aplikatzeko zein azken aldiari asmatutakoak).
- 3. Inplementazioa eta proba piotuak:** Neurri berritzaileak aplikatzea sei hiri pilotutan.
- 4. Inpaktuaren ebaluazioa eta prozesuaren ebaluazioa:** Sei hiri pilotuetan gauzatu diren neurrien izaera eta eraginaren irismena ulertzea.
- 5. Erabakiak hartzeko prozesuari laguntzea eta ondorioak:** Proiektuan ikasi direnak sintetizatzea eta sendotzea, beste hiri batzuetan ere erabil ditzaten ahalbidetzeko.

Ekintza motak

ReVeALek mota askotako UVAR neurriak aztertuko ditu, bai lehendik ezagunak direnak bai abangoardiakoak, lau "Neurri areatan" bilduta.

Neurri areak honakoak dira:



Zero igorpeneko zonak: Zero igorpeneko ibilgailuak soilik onartzen diren guneak.



Esku hartze espazialak: Plangintzan eta diseinuan oinarritutako sarbide erregulazioak eta esku hartze fisikoak espazio publikoan.



Traffikazio neurriak: Ordainketa gune zehatzetarako sartzeko.



Etorkizuneko funtzionaltasun bermea eta etorkizuneko aukerak: Neurri guztiak barne hartzen dituzten balizko tresna eta teknologiak.

Trantsizio areak

ReVeALek uste du UVAR neurrien aplikazioa ezinbestekoa dela trantsizioa kudeatzeko erronka zabalagoaren baitan. Horrek hiri garraioeko sistemaren elementu askoren aldaketa koordinatu asko behar ditu, eta aldaketa horiek lau "trantsizio areatan" bildu daitezke:



Gobernantza eta finantziazioa



Erabiltzailearen premiak/onarpena



Mugikortasun kontzeptuak



Sistemen diseinuak/teknologia

ReVeAL hiriak

UVAR neurri anitz garatu, inplementatu eta probatuko dira honako hirietan: Helmond (NL), Jerusalem (IL), Londres (UK), Padua (IT), Vitoria-Gasteiz (ES) eta proiektuaren liderra den Bielefeld (DE).

Emaitza gakoak

Sei hiri pilotuetako prozesuak eta inpaktuak lagundu, dokumentatu eta analizatzeko sortu diren mekanismoei esker, ikasitako lezioak modu sistematikoan laburbildu ahal izango dira eta, horrela, UVAR sistema adimentsuak Europa osoan hedatzeko aukera egongo da.

Proiektuaren emaitza nagusiak erabakiak hartzeko prozesuei laguntzeko tresna osagarriak izango dira:

- UVAR neurriak aplikatzeko prestaketaren ebaluazioa
- UVAR prozesuen aholkularitza
- UVAR neurriak mugikortasun planetan txertatzeko gomendioak
- UVAR neurrien ebaluaziorako markoa eta parametroak

Interesdun eragileen parte hartzea

ReVeALEk munduan dauden UVAR aditu nagusien laguntza du. Hiri pilotuek haien laguntza pertsonalizatua izango dute UVAR neurriak diseinatu eta aplikatzeko orduan. Proiektua interesdun eragile askorengana iritsiko da, proiektuaren aurrerapenak erabiltzaileek itxaropenekin bat etor daitezten. Erabiltzaileak diogunean, honakoez ari gara:

- Tokiko gorberruen politiken arduradunak
- Mugikortasun zerbitzuen eta konponbideen hornitzaileak
- Teknologia hornitzaileak
- Azken erabiltzaileen erakundeak

Bazkideak



Centro de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia



In collaboration with:



Informazio gehiago

ReVeAL proiektuari buruzko informazio gehiago jasotzeko, joan proiektuaren webgunera:

www.CIVITAS-REVEAL.eu

Jarraitu ReVeAL Twitterren: **CIVITAS_ReVeAL**

Egin bat ReVeALEk LinkedIn sarean duen taldearekin::
in CIVITAS-ReVeAL

Edo jarri harremanetan zuzenean:

Olaf Lewald (Bielefeld hiria) olaf.lewald@bielefeld.de
(proiektuaren koordinatzailea)

Maria José Rojo (Polis sarea) mjrojo@polisnetwork.eu
(zabalkundearen arduraduna)



THE CIVITAS INITIATIVE IS CO-FINANCED BY THE EUROPEAN UNION

Argitalpen hau Europar Batasunaren laguntzarekin egin da. Bertako edukiak ReVeAL taldearen erantzukizun eksklusiboa dira eta ez dute Europar Batasunaren iritzirik zertan islatu behar.